



Kolorea, musika eta atxaureak gaurtik, Leitzako Ihoteetan

ITXURALDATUTA ▶ Gaur hasi eta asteartera arte, beste itxura bat hartuko du herriak, festa giroz eta alaitasunez atxoatuta

ESKEA ▶ Bihar, astelehenean eta asteartean erdigunean eta baserriz baserri egingen dute; gaur, Erleta eskolaren kalejira izanen da ▶ 7

SINADURA



Itxura ez duen horri irudia eman nahian

ALEGIA ▶ Jubilatuen tabernan, Ana Ansorena artisauaren buztinezko lanak ▶ 5

TOLOSA ▶

Zazpi domin lortu dituzte Tolosa CFko atletak

Pista Estaliko Txapelketan ▶ 3

TOLOSA ▶

«Alderdi politikoak lan mahaia osatzeko prest azaldu dira»

Gerontologikoaren itxieraren aurkako plataforma politikariek bildu da ▶ 4



Plataformakoak, atzo. N. LATABURU

BELAUNTZA ▶

Udalak babesa eman dio Etxebeste-Olano sendiari bilkuran

«EAJren agente gosea dago honen atzean», dio Tolosaldeko Batasunak ▶ 6

ERO-ETXE ELKARTEAREN XIX. KROSA ▶



Iaz ere partaidetza altua lortu zuen Ero-Etxe krosak; aurten ere hala espero dute. HITZA

Haurrei zuzendutako Ero Etxe elkartearen krosa, etzi goizean

11:30ean emango diote hasiera XIX. edizioari; trafiko neurriak hartuko dituzte krosak irauten duen bi orduetan

IMANOL GARCIA

Ero-Etxe elkarteak urtero antolatzen duen krosaren eguna iritsi da. Etzi izango da hitzordua, eta aurtengoan XIX. edizioa beteko da. Ohi bezala, haurrentzako antolatutako proba da, 1992tik 1997 urtera bitartean jaiotakoentzat, hain zuzen. 11:30ean emango diote hasiera lasterketari, San Frantzisko ibiltokian, Fronton kafetegiararen parean. Ibiltokiaren inguruan eta Alde Zaharrean ariko dira korrikalariak.

Hiru mailatan ariko dira lehian. Alde batetik, infantilak, hau da, 1992. eta 1993. urteetan jaiotakoak. Mutilek bi itzuli luze egin beharko dituzte, hots, 2.800 metro. Neskek itzuli motz bat eta luze bat egin beharko dute, guztira 2.000 metro. Kimuak mailan, 1994. eta 1995.

urteetan jaiotakoak, mutilek itzuli motz bat eta luze bat egin beharko dute, 2.000 metro, beraz; eta neskek itzuli luze bat egin beharko dute, hau da, 1.400 metro. Haurren mailan, hau da, 1996. eta 1997. urteetan jaiotakoak, mutilek bi itzuli motz egin behar dituzte, 1.200 metro, eta neskek itzuli motz bat, 600 metro.

Trafiko aldaketak

Tolosako Udaltzaingoak bidalitako prentsa ohar batean azaltzen duenez, Ero-Etxeko krosak zenbait trafiko neurri hartzea ekarriko du. Horrela, etzi, 11:00etatik 13:00etara bitartean, erdialdean aldaketak izango dira motordun ibilgailuentzat. Lasterketa bakoitzean, hain zuzen, itxi egingo dute bideak Santa Klarako biribilgune-

an, Zumalakarregi kalerantz (garajeak izan ezik). Ibarra-Leitzara eta erdialdera joateko, autobidean erdialdea dioen irteera erabiltzea (Usabal-Laskorain Ikastola-Kondeko Aldapa) gomendatu dute, edo hegoa irteera (Benta Haundin aterata, Araba etorbideko lurrazpiko pasabide berritik). Krosak irauten duen bitartean, Gorosabel kaletik datozenek Lekuona kaletik Gernikako Arbolarra eta hortik San Estebanera joan beharko dute. Handik noranahi jo dezakete.

Bestalde, Roncalesa enpresako autobusa Belate ibiltokiko autobus geltokian geldituko da. TSST enpresakoak zezenplazan, Nafarroa etorbidean eta Igarondo kalean (bialean) geldituko dira. Taxien galekua Soldadu kalean izango da, eta ez Zumalakarregi kalean.

MUSIKA ▶

Maila handiko taldeak, Bonberenean

Gaur beste bi kontzertu izango dira entzungai Bonbereneako taula gainean. 22:30ean hasita, Lobo Electrico talde tolosarrak joko du zuzenean; etxeko taldearen ostean, berriz, Arima Beltza-ren txanda izango da. Bihar ere izango da zer gozatua etxean; izan ere, Kannon taldeak zuzeneko emanaldia eskainiko du, 22:30etik aurrera. Bada, musika aitzaki, festa giro aparta izango da nagusi asteburu guztian zehar Bonberenean.

IKASTAROAK ▶

Antzerki ikastaroa Amarozen

Amarozko Antzerki Artisauek antzerki ikastaro berri bat antolatu dute aurtengorako. May Gorostiaga aktore tolosarra izango da zuzendari eta irakaslea. Ikastaroaren inguruko xehetasunen berri emateko, bilerara deitu dute; astelehenean izango da, hilak 23, 19:30ean, auzoko lekalean. Amaroeko taldekoek adierazi dutenez, nahi duenak parte har dezake. Era berean, zehaztu dute ikastaroa hamasei urtetik gorako antzerkizaleentzat antolatu dutela.

HITZALDIA ▶

Alkoholismoari buruzko hitzaldia Kultur Etxean

Tolosako Udalak antolatu duen ekitaldien baitan, gaur hitzaldi bat izango da. Kultur Etxean antolatu dute ekitaldia, eta alkoholismoa izango dute hizpide saioan. Hitzordua 19:00etan izango da. Gai honi buruz informazioa jaso nahi duenak, horretarako aukera du, beraz, gaurko hitzaldian.

IKASTAROAK ▶

'Gestio kontablea' ikastaroa emango dute doan LHIn

Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak jakitera eman duenaren arabera, Gestio kontablea izeneko ikastaroa antolatu du, eta laster hasiko da. Ikastaroa goizez emango dute, eta lanategietan praktikak egiteko aukera izango du ikastarotant parte hartzen duenak. Matrikula doan izango da. Informazio gehiago nahi duenak edo izena eman nahi duenak ikastetxera jo dezake edo 943 65 11 47 telefono zenbakira deitu.



Taldeen antzezian bat. HITZA

ERAKUSKETA ▶

Luis Maria Nuñezen koadroak Aranburun

Luis Maria Nuñez margolariaren —Tolosan jaiotako eta egun Anoetan bizi dena— erakusketa izango da ikusgai Aranburu Jauregian. Gaurtik aurrera eta otsailaren 25a arte ikusi ahal izango dira Nuñezen margolanak. 17:30etik 20:30era egongo da irekita erakusketa, jaiegunetan eta astelehenean izan ezik.

HITZA **txokoa** lagunen

Egin zaitez harpidedun!

▶ 45 €-ren TRUKE, HITZA egunero jasotzeaz gain, HAINBAT ABANTAILA izango dituzte harpidedunek. Harpidedunen txartela izango dute, besteak beste, eta HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera.

▶ HITZAren harpidedun izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ATLETISMOA ▶

Tolosakoak dominekin «pozik» etxera

Pista Estaliko Gipuzkoako Txapelketan 7 domin lortu dituzte atletek

ERREDAKZIOA

Joan den asteburuan Donostia-ko Belodromoan jokaturiko Pista Estaliko Gipuzkoako Txapelketan Tolosa C.F.ko atleten partaidetza aipatzekoa izan zen: guztira, 7 domina lortu zituzten eta atleta gazte gehienek beren markak gainditzea lortu zuten; gainera, 400 metro nesketan podiuma tolosarra izan zen.

Hasteko, eta ia lortutako garaipenari jarraituz, Eva Zulaikak «nagusitasun osoz» irabazi zuen 400 metrotako proba. Iaz garai hontan egin zuen marka ia segundo batean jaitzi zuen, 59'66ko denbora eginez. Proba berean eta podium tolosarra osatuz, Amaia Jauregi (1'00"75) eta Amaia Segurola (1'00"83) sailkatu ziren. Baziduri Segurolak Jauregi irabaziko zuela, baina ez zen horrela izan. Hala ere, Amaia Se-

gurolak bere pista estaliko marka segundo batean hobetu zuen eta Espainiako Junior Txapelketan parte hartzeko txartela lortu zuen. Aurreko biak jada txartel hori eskuratu zeukaten.

200 metro nesketan, berriz, Evak, bi Amaiak eta Elisabeth Ferrerok ere bikain aritu ziren: azken sailkapenena bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren gelditu ziren, hurrenez hurren, gehienak beren marka hobetuz. Zulaikak bere finalurrekoan erraz irabazi zuen 26"30 markarekin, eta finalerdiko berdinean Jauregik eta Segurolak beren markak hobetu zituzten, 26"64 eta 27"44, hurrenez hurren. Finalean, berriz, Zulaikak azpitxapelketa lortu zuen 26"29 denborarekin, eta beste tolosarrak, lehen esan bezela, atzetik sartu ziren. Elik ere finalurrekoan bere marka hobetu zuen, eta finalen



Tolosa C.F. atletismo taldeko neskek, euren dominekin. HITZA

ere bi ehunenekotan berriro jaitzi zuen, 27"53ko denbora eginez. Beraz, proba hau ere ia tolosarra izan zen. Aintzat hartu behar dugu, bestalde, finalurrekoetan Irene Otegitik 28"27ko marka egin zuela —lehenengo urtea da lehiatzen ari dela eta bilakaera ona ari da erakusten—; Garazi Sanchezek eta Elene Selasek ere parte hartu zuten.

800 metrotan izan zen beste

domina tolosarrentzat: Iker Mansok lasterketa argia eginez, azken esprintean bigarren egin zuen. Kontuan izanik bezperan 1.500 metrotan laugarren sailkatu zela, bere partaidetza «bikaina» izan zela esan behar da. 800 metrotan Jon Saizarrek ere parte hartu zuen, eta 5. sailkatu zen. Nesketan, bestalde, Oihane Vazquezek 4. postua lortu zuen eta Maialen Lopez korrikalari gaztea 6. sail-

katu zen, bere marka hobetuz, gainera.

Tolosarrentzat azken domina Leire Agirrezabalak eskuratu zuen 1.500 metrotan, bere pista estaliko marka 10 segundotan hobetuz, 5'25", eta brontzea janztea lortuz; «horrela jarraituz gero marka hau ere berehala onduko du».

Kadeteek ere beren lehen 3.000 metroko proban egin zuten aipatu dute klubekoek: Eneko Garinek 9'19"06ko markarekin Espainiako kadete mailako Txapelketan parte hartzeko txartela «oso erraz» lortu zuen, eta «badirudi ez zela nekatu»; izan ere, erruz, beste itzuli bat egin zuen. Bere taldekide Eneko Tapiak ere «oso marka polita» egin zuen, 9'49", eta aurreko txartela lortzetik oso gertu geratu zen.

Tolosako taldearen parte-hartzea hauekin osatu zen: 60 metrotan, lehen aipaturiko Eli Ferrerok 4. postua lortu zuen. Hemen ere Irenek, Garazik eta Elenek parte hartu zuten, Nagore Errazkin kadeteak bezala; eta mutiletan, berriz, Xabier Lizasok eta Mikel Munarrirek ere, azken hau, zuintiratu bat medio, erretiratu bazen ere. Thiago Pereira jubenilak 1.500 metrotan bere marka 9 segundotan hobetuz, 4'30", 6. postua eskuratu zuen. Juan Carlos Etxebeste Moxo-k ere 400 metrotan hartu zuen parte Espainiako Txapelketarako prestakuntzan test on bat eginez.

ZESTA-PUNTA ▶

Beste jardunaldi bat hainbat txapelketatan Beotibar taldekoentzat

N. LATABURU

Zesta-puntako txapelketek aurrera darraite, eta beste jardunaldi bat jokatu da asteburuan. Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketak, esaterako, partidak bat hartuko du gaurkoan,

infantilen mailan: Beotibar 1 taldea Beotibar 2 taldearen aurka ariko da, Beotibar pilotalekuan, 19:30etik aurrera. Alebinek, berriz, atsedena dute.

Larunbat eta igande artean, gainera, bi txapelketako partidak jokatu dituzte Beotibar

taldeko puntistek. Bihar, 17:00-etan, Noaingo Bidezaharra pilotalekuan, Euskal Herriko Kluben Txapelketan, Noain eta Beotibar 1 ariko dira nor baino nor. Arratsaldeko bigarren norgehiagoka osatuko du talde tolosarrak.

Etzi, Uzturpe pilotalekua izango da partida gehiagoren eszenatoki. Bi izango dira, hain zuzen, 11:00etatik aurrera ikusgai izango direnak: lehena Udaberri Txapelketaren barruan jokatu da eta bi talde nagusien artekoa izango da, Beotibar eta Gazteleku 1. Maila berean, baina Euskal Herriko Kluben Txapelketaren barruan, Beotibar 2 taldearen eta Donostia Jai Alairen aurkakoa, hain zuzen ere.



Beotibarreko kadeteak. HITZA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

TOLOSA ▶ GERONTOLOGIKOA

«Alderdi politikoak lan mahaia osatzeko prest azaldu dira»

Gerontologikoaren itxieraren aurkako plataformak bilerak egin ditu Aldundiko eta Tolosako Udaleko ordezkariekin



Eta orain zer? plataformako kideak, atzo, Gerontologikoaren sarreran. N. LATABURU

NOELIA LATABURU

Eta orain zer? Gerontologikoaren itxiaren aurkako plataformak Gipuzkoako Aldundiko eta Tolosako Udaleko ordezkariekin bildu da azken asteotan.

Plataformak ordezkari politikoekin eginiko bilera hauen gainean jardun zuen atzokoan, bai eta etorkizunerako helburuen gainean ere. EAJko Jokin Bildarratz alkatearekin, EAKo Onintza Lasarekin, TBko An-

ton Izagirrekin, PSEko Oscar Renedorekin, PPko Anjel Yañezekin eta EBko Jose Mari Vieitekin bildu da, bada, plataformak. Ekintza hau burutzeko hainbat arrazoi aipatu zituzten plataformako kideek; batetik,

adinekoei dagokien egoeraren aurrean alderdi bakoitzak egin zuen analisi politikoak ezagutzea. Bestetik, zein norabide eta zentzutan zuzendu behar zituzten aurreikusita zituzten ekintzak. Eta, azkenik, plataformarekin batera lana egiteko prest izango ziren jakitea. «Deneke ere gurekin lan taldean parte hartzeko intentzioa azaldu dute». Hau «itxaropentsutzat» baloratu dute; izan ere, «gure helburua geriatrikoa lortzea da, justiziaz egokitzen zaiguna eta lan mahai batean». Dena den, «aurrekariak ditugu eta ikusi egin beharko da zer gertatzen den aurrerantzean». Lehen bilera aurki burutuko dutela adierazi zuen atzo plataformak. Une egokia delakoan daude kideak; izan ere, «lekuak eraikitzeko politika batean gaude eta unea aprobetxatu egin behar dugu».

«87 plaza falta zaizkigu»

Aipatutako bileretan orain arteko prentsa-ohar guztietan plataformak argitaraturiko informazioa jasotzen zuen txosten bat ere entregatu zieten politikariei. Hauengatik aipagarriena «Gipuzkoako Diputazioak 2010. urterako eskualde guztietarako berea egin duen, 65 urtetik gorako 100 pertsonetatik 4,1 pertsonentzako erresidentzia plaza bana lortzearen helburua». Hau da, Tolosaldeari berez dituenak baino 87 plaza gehiago falta zaizkio. Alderdi politiko guztietako ordezkariak egiaztatu eta onartu zituzten aipatu datu honen «ondorio latzak», besteko beste, itxaron zerrenden egoera eta senideetatik urrun dau-

den beste eskualdeetako erresidentzietara joan behar izatea. Bestalde, «ea beraietzako egoera hau onargarri zen galdetu genien, ea hau ote zen bere herrikide eta familikoentzat nahiko luketen egoera eta, hala ez baliz, gauzak aldatzearen zer egiteko eta zer konpromiso hartzeko prest leudeken, orain artean tristura adierazpenez gain gauza gutxi entzun eta ikusi baitugu». Era honetan azaldu zuen atzokoan plataformak bileren edukien nondik norakoak.

Egoeraren ondorioekin bezalaxe, zergatiak bilatzeko garaian ere bat egin zuten plataformak eta politika ordezkariak, hain zuzen ere, gure eskualdean dagoen adineko pertsonen kopuru handirako, eskaintzen den zerbitzu kopuru urriaren «ondorio logikoa». Beraz, arazoa konpontzeko modu bakarra «zaharren egoitza berri bat irekitzea» dela adierazi zuen plataformak. Plataformaren esanetan, «justiziaz dagozkigun erresidentzia plaza horiek lortzeko, orduan eta indar gehiago metatzen ditugun unetik orduan eta aukera gehiago izango ditugunaren uste osoa azaldu diegu alderdi guztiei». Hau lortzeko, bada, «bakoitzak bere esparruan eta duen ahalmen guztiarekin» egin behar du lan. Gerontologikoaren itxiera jazo zenean, udal ordezkariak bakarrik aritu zirela aipatu zuten atzo eta, herritarren indarra ez baliatzeagatik «Aldundiaren esanetara makurtu» behar izan zutela. Denak batera Diputazioarekin izan daitezken «hurrengo lehian» garaileak izango direlako sineste osoa dute.

ASTEASU ▶ XI. MENDIA ASTEA

Joxean Azkueren errautsak zabalduko dituzte bihar Zelatunen

ERREDAKZIOA

XI. Mendi Asteak bihar egun berezia izango du, kultur ekitaldi honen bultzatzaile eta antolatzaile izan zen Joxean Azkue mendizale asteasuarrari omenaldia bihurtuko baita. Pirinioetan heriotza aurkitu zuen mendizaleak hainbeste aldiz burutu eta sustatu zuen mendi ibilbidea egingo dute, hau da, Asteasu-Usarrabi-Zelatun lotzen dituen PR-GI 76a.

Ibilbidearen irteera 09:30ean izango da herriko plazatik eta espero dute 12:00ak aldera Zelatunera iristea. Bertan, Joxean Azkueren errautsak zabalduko dituzte, hain maitea zuen inguruetan.

Mendi Astearen biharko ekitaldiak omenaldi horrekin amaituko dira. Baina etzi, igan-

dean, eskaladaren inguruko ekitaldia burutuko dute herriko frontoian berriki jarri duten rokodromoan. Hain zuzen ere, rokodromoaren inaugurazioa egingo dute, 11:00etan. Ondoren, Aitor Uson eskalatzaileak segurtasunari buruzko informazioa emango du eta baita eskalada erakustaldia egin ere. Horren ostean, Aitzondoko I. Eskalada Topaketa egingo dute. Ez da lehiaketa izango, rokodromoa probatzeko aukera baizik. Adin guztiei zuzenduta dago eta bukaeran oroigarri bat jasoko dute parte-hartzaileek.

Bestalde, Pirinioetarako asitebururako izena eman nahi dutenek liburutegira jo behar dute. Interesatuak otsailaren 3a izango dute horretarako azken eguna.

VILLABONA ▶

Mendi hitzaldia eta diapositibak Gaztetxean

Leopardo de las nieves izeneko mendi hitzaldia eta diapositiba emanaldia eskainiko dute gaur, 19:30ean, Villabonako Gaztetxean.

ALEGIA ▶

Mendi ibilaldia Guraso Elkarteak antolatuta

San Joan Herri Eskolako Guraso Elkarteak mendi ibilaldia antolatuta du etzizako. Eskola Txikitik 09:30ean aterata, Alegia-Lizarrola-Orendaingo Errota egingo dute.

Errota taberna

Enkarguz:

- Askariak umeentzako
- Bazkariak, afariak
- menu bereziak
- plater konbinatuak

Asteartetik larunbatera
10:00 - 21:30
Igandeak
11:00 - 21:30

Santa Maria, 1 • Tolosa

ALEGIA ▶ ERAKUSKETA

Ana Ansorena artisauaren erakusketa

Buztinez egindako lanak jarri ditu tolosarrak Jubilatuen tabernan

NEREA URBIZU

Sei urte daramatza Ana Ansorena tolosarrak artelanetan, Tolosako Kultur Etxean, Arantxa Munitarekin. Egutero lantzen du zer edo zer bertan. Zeramikak eta buztina oso gustoko zuen eta horretan aritu da duela bi urte eta erdiz geroztik. Loreontziak, bandejak eta eskultura lantzen ditu, oro har. Orain, Alegian jarri ditu bere lanak, Jubilatuen tabernan. Ikus daitezkeen koadro bereziek ez dute beste margolanekin zerikusirik. Izan ere, buztinez eginak daude, materialak ez dira normalean zintzilik ikusten.

Zeramikako koadro hauetan egileak koloreari garrantzia handia ematen dio. Gainera, zaila da oso nahi den kolorea lortzea; izan ere, kimika hutsa da, eta «ez da beti nahi den tonoa lortzen», Ana Ansorenak berak HITZARI azaldu dion moduan. Esmalteak behar dira tonoa lortzeko, kuartzoa, esaterako. Horrez gain, «garestia da materiala, eta ordu asko behar dira koloreak lortzeko. Pazientzia handia behar da».

Ana Ansorenak koadroetan islatu nahi izaten duena orotarikoa da: ametsak, ilusioak, barne egoerak, gauzak, baloreak, momentuak... Itxura ez duen horri irudi bat ematea, besteak beste. «Hitzak zerbait adierazteko herrenak geratzen direnean, artean plasmazten dut adierazi nahi dudana hori. Elementu bat transformatu egiten dut, mundu bat egiten dut horrekin». Baina gero, baieztatzen zuen moduan, «zaila dena, hori interpretatzea da».

Ez du gai bat zehazki lantzen, hortaz. «Zuhaitzaren adar batean amets bat ikus dezaket, edota errekan sentimendu bat». Horregatik, Alegian dauden artelan artean, biluziak, urtaroak, erlijioarekin loturiko irudiren bat, besarkada bat eta beirak ikus daitezke, besteak beste. Artelanekin beharrak asetzen ditu artista honek, barnean duen hori kanporatzen laguntzen diolako, bai alaitasun egoerak, baita egoera tristea ere. Horregatik, terapia-

tzat hartzen du afizio hau: la-saigarri bat da harentzat, arazoak baretzeko modu bat, la-saitasuna sentitzeko unea. Hark dioen bezala, «gorputza, arima eta garunaren arteko armonia hori lortzen denean, hori da ene terapia: terapia holistikoa, hain zuzen ere». Horretaz gain, «indar handia hartzen da besoetan eta bereziki behatzen, orea asko landu behar baita, buztin zatiari nahi zaion itxura emateaz gain».

Koadroak egitean magoa sentitzen da, alkimista: «Kolo-reak lortzeko nahasketa bereziak egin behar dira, eta buztinezko zati mardul batetik, zuk eskuekin manipulatu ondoren, modelatu, itxura aldatu eta landu ondoren ikus daitezkeen eta uki daitezkeen emaitza bat lortzen duzu, eta hori oso asegarria da».

Beraz, emakume honen ilusioak nahiz baloreak islatuta ikus daitezke margolanetan. Horregatik, garrantzia handia ematen dio egunean norberak sentitzen duen horri, horren arabera gauza bat ala bestea ateratzen baita. Emaitza horiek lortzeko, mimo handia eman dio oinarriko materialari, hau da, buztinari. Izan ere, trataera berezia behar du bizia duen materia honek: hezetasun zehatz bat, tenperatura konstantea... Erliebetan egindako margolana, ondoren, labe berezi batean lehortzen da eta egosi egiten da, gradu jakin batzuetan. Prozesua ongi egina bada, artelana osorik ateratzen da labetik. Zer edo zer ongi egiten ez bada, ordu askotan egindako buztin zatia hautsi egiten da gehienetan. Ansorenak dioten moduan, «labearena, erditzea bezala da: ez dakizu zer aterako den eta nola aterako den ere. Oso bizigarria da egoera». Beraz, lan berezia eta pazientzia handia eskatzen du buztinak. Trataera berezia, ia egutero zaindu behar den materiala da zeramika.

Ez du artista berezirik kopiatzen, berak gustoko duena egiten du, ateratzen zaiona, alegia. Margolana egitea garestia izan badaiteke ere, «denbora libre pasatzeko modu ezin ho-



Egusentziak. Horrelako hainbat paisai aurki daitezke Alegiako jubilatuen tabernan. Kasu honetan, naturaren elementuak erabili ditu, denetan ere eguzkia era minimalistan dago egina, haur batek egin izan balu bezala. Efektu hori nahitza egina dago. Sinplifikazio esanguratsua, ertza bereziekin, erliebea bistan dela, eta koloreak ere ongi definituak. N. URBIZU



Amak birjina semearekin. Hau izan daiteke erlijioari lotutako margolanetako bat. Ikusten denez, ez du markorik, erakusketako margolan guztiek bezala. Itxura berezia dute. N. URBIZU



Izar iheskorra, eta hostoa haizean. Kasu hauetan, Ana Ansorenak paisaia aukeratu du koadroak egiteko. Behetakoan, platanero zuhaitzetako hostoa, haizea ere irudikatuz. N. URBIZU

bea da niretzat, eta hobe da dirua materialetan gastatzea, botiketean baino».

Ez da hau bere lehen erakusketa; izan ere, Lanbroa tabernan bitan jarri ditu ikusgai, Saikinen, Aranburu Jauregian ere bere ikaskideen lanekin batera, Txinpartan beste behin, eta beti ikusgai dauden lekua Borda inmobiliaria da. Aurrerantzean ez dago beste leku batean jartzeko dataren berririk. Nahi duenak, Alegiako jubilatuen tabernan ikusteko aukera dauka, otsailaren 9ra arte.

Erremontari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30
LENTZERIA

MERKEALDIA

%40 **%30** **2x1**

Helduentzat eta haurrentzat

Kamisoiak, pijamak, neguko batoiak, kamisetak...

BELAUNTZA ▶ POLITIKA

Etxebeste-Olano sendiari babesa eman dio Udalak

Mozioa onartu zuen Udalak presazko ohiz kanpoko udalbatzarrean, Erroizperen eta EAJ-Earen botoekin; Sustraiak plataformako zinegotziak abstenitu egin ziren

ERREDAKZIOA

Belauntzako Udalak Etxebeste-Olano sendiaren altzari denda izandako sutearen aurrean salaketa «argia eta garbia» egin du, eta familiari babesa eman dio, «jasaten ari den jazarpen egoera behin betikoz buka dadila» eskatuz.

Izan ere, Belauntzako bizilagunaren dendak bi urtetan jasan duen bigarren eraso izaki, presazko ohiz kanpoko udalbatzarreko deia egin zuen Udalak herenegun. Hala, «jasanezinezko eraso larri hauek kondenatzeko eta berriro horrelakorik edo bestelako erasorik ez gertatzeko», Erroizpe eta EAJ-EA Belauntzako

udaleko taldeetako alkatearen eta hiru zinegotzien aldeko botoekin eta Sustraiak plataformako hiru zinegotzien abstentzioarekin, mozioa onartua geratu zen.

Halaber, salaketa egiteaz gain, horren aurrean Belauntzako Sustraiak plataformari bere posizionamendua eskatu zion Udalak. Horri erantzunez, ez Sustraiak-ek ez eta ezker abertzaleak ezbeharrarekin «zerikusirik ez» dutela adierazi zuten bertako ordezkariak, eta «onartezinatzat» jo zituzten haien aurkako «akusazioak»: «Taldea politiko bezala ez dugu horrelakoetan parte hartzen, ez eta horrelakoak konpartitzen ere, are gutxiago Euskal

Herrian bizi dugun une politiko garrantzitsu hauetan». «Argi daukagu ekintza honek ez duela kutsu politikorik; beraz, gertakizun horren erabilera politikoa egiten ari direnek jakingo dute zergatik eta zein helbururekin egin duten», adierazi zuten, bestalde. Orain bi urte, denda erre zutenean, Sustraiak plataformak «behin eta berrir» ikerketako emaitzen berri eskatu zuela baina isiltasuna izan dela jaso duen erantzuna azaldu zuten, eta haiek direla interesatuenak ikerketa egin dadin azpimarratu zuten.

Horren aurrean, Edurne Arbelegi alkateak Erroizpe taldekoak akusaziorik egin ez dute-

la erantzun zuen, eta 2004ko otsailaren 27ko udalbatzarrean —lehen sutearen ondoren— Sustraiak-eko zinegotziak abstenitu egin zirela gaineratu. Ikerketez ez dutela informaziorik esan zuen.

Udalbatzarra amaitu ostean, udaletxe kanpoan kontzentrazioa egin zuten kaltetutako familiari elkartasuna adierazteko, *Hurrengo noiz?*, *Hurrengo noiz? Elkartasuna familiari eta Noiz arte?* leloekin. Jaurritzak nahiz PSE-EEK, EAK, EBK eta PPK ere gaitzetsi dute ekintza eta sendiari elkartasuna adierazi. Bestalde, kontzentrazioaren ondoren, *Gerra zikinarik ez!* leloarekin Sustraiak-i babesa adieraziz bildu ziren.



Kaltetutako familiari babesa azaldu zioten batzarren ostean. I. GARCIA



Ondoren, Sustraiak taldeari elkartasuna adieraziz bildu ziren. I. GARCIA

Tolosaldeko Batasuna: «EAJren aginte gosea dago honen guztiaren atzean»

Kaltetutako familiari elkartasuna adierazi dio; Arbelegiri eta Etxebesteri beraien salaketa publikoak zuzentzea exijitu die

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Batasunak larunbatean Etxebeste-Olano sendiaren denda izandako sutea «gertaera larria» izan dela eta familia kaltetuari elkartasuna adierazi zion atzo eskaini zuen prentsaurrekoan. «Hala ere, larria iruditzen zaigu gertaera horren ardura ezker abertzaleari egoztea, eta Edurne Arbelegi eta Luis Etxebeste jaunari

beren salaketa publikoak zuzentzeko exijitu nahi dugu, horiek ezker abertzalearengan zuzentzeak ekar ditzakeen ondorioak asko kezkatzen baizaitu», gehitu zuen.

Batasunak, «ez dela hau izan eskualdean jazotako gisa honetako gertaera bakarra izan» esan zuen, eta «injustizia honen guztiaren atzean PNVren aginte gosea» dagoela, «ez baitu inoiz onartu eskualdean ez-

ker abertzaleak duen babesa eta indarra, eta edozertarako prest dago ezker abertzalea desprestigiatu eta apurtzeko». Agerraldiaren bidez, «EAJri estrategia aldatzea eskatu nahi diogu, ezker abertzalea ez baita euren tranpan eroriko». Une politiko «ezin interesgarriagotan», Euskal Herriaren aldeko «apustua» egin dezan eskatu zioten PNVri.

Bestalde, orain bi urte beste

sute bat izan zenean ere «akusazio larriak» jasan zituela ezker abertzaleak «etekin politiko baten bila» adierazi zuten. Gertaera haren inguruko ikerketan parte hartzeko nahia azaldu zuela, baina ukatu egin zitzaioela parte-hartzea azaldu zuten, eta oraingoan ere ikerketa bat egitea eta ondorioak publiko egitea eskatu zuten. Sutearen ardura ezker abertzaleari leporatzea «gerra zikina» dela zehaztu zuten; «ez gaude gauzak bere horretan uzteko prest eta gaia argitzea nahi dugu», gaineratu zuten, halaber.

MOZIOA ▶

Idatzi hau onartu zuen Belauntzako Udalak.

1. Gertaera hauen salaketa argi eta garbia egiten du Belauntzako udalak eta udal honek Etxebeste-Olano familiari babesa adierazten dio, jasaten ari den jazarpen egoera hauek behin betikoz bukatu daitezela eskatzen dugularik.
2. Gertaera hauen aurrean Belauntzako Sustraiak taldeari bere posizionamendua eskatzen diogu.
3. Pleno honen ondoren plazan kontzentrazio ixil baterako deia egiten dugu, lelo hauekin: *Elkartasuna familiarekin. Hurrengo noiz? Hurrengo noiz? Noiz arte?*

ERREAKZIOAK ▶

ERROIZPE

«Istilurik gabe igaro zen batzarra, eta hori positiboa da. Sustraiak-ek irakurritako idatzian, ez baitzen mozioa izan, ez dutela zerikusirik dio; baina guk ez dugu inor akusatu. Ikerketari dagokionez, ez dugu inongo informaziorik izan, eta zerbait jakin-go bagenu, hitz eman genuen bezala, segituan zabalduko genuke informazioa. Euren kontzentrazioan belauntzar gutxi eta inguruko herritarak zeudela azpimarratu nahiko genuke; gure ustez, herriko arazo bat da, eta bertan konpondu beharrekoa. Aurrera begira, ea herrian gauzak aldatzea lortzen dugun».

SUSTRAIAK

«Edurne Arbelegi ez ziola inorri egotzi ekintza esan zuen, eta adierazpen horiek atzera egin du, berak eta Etxebestek zuzenean ezker abertzalea akusatu baitute. Orain bi urte sutea gertatu zenean, ikerketaren inguruan informazioa ematea eskatu genuen, eta ez digute ezer argitu. Gainera, haiek halako interesa izateak zerbait ezkutatzeko aukera ere ez zituzten eman. Guk burutu genuen kontzentrazioan Belauntzako jendea nahiz kanpoko elkartu zela, eta hori zergatik ari dira esaten, beraiak izan direnean gaia kanporatu dutenak. Begira dezatela beraien artean nor zegoen».

LEITZA ▶ IHOTEAK

Hemen direla, hemen direla!

Gaur bertatik hasi eta heldu den asteartera arte, kolorea, musika... atxaureak jabetuko dira herriaz

JAIONE ASTIBIA

Hemen dira. Ailegatu dira Ihoteak. Hasi, hasi, etzi igandea hasiko badira ere, gaurtik aurrera herriak beste itxura bat hartuko du eta koloreak, bitxikeriek, atxaureek, batez ere alaitasunak eta txantxak leku duten *Pesta Tikik*, Ihoteak, hementxe dira: ganbarako arraferoan ahaztuta dauden amonaren gonagorontza, aitaren arrantzako katuskak, arrebahizparen peluka, amaren tokila soinean eta aitonaren zapela buruan izanik atxoatu eta alde atarira! *Laaa, lara-lara-lara, laaa, lara-lara-lara (bis)*.

Kanpora ateratzea nahikoa izaten da festaz gozatzeko, beste deusen beharrik gabe. Baina festaren osagarri, gaurtik bertatik hasi eta hurrengo astearte arte hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Denok bat guraso elkarrekin, Aurrera elkarrekin, Gazte Asanbladak, Leitzako Udalak eta Kultur Taldeak: ikuskizunak, tailerrak, puzgarriak, kontzertuak, otorduak...

Zalantzarik gabe, ordea, ondorengo egunotako ezaugarri, baserrietara egiten den eskea da. Astelehenean auzo batzuetara, asteartean bestera, baserri baserri joanen dira musika, etxfuego... atxoatuta.

Hori baino lehen, bihar bertan, trikitilariak, txistulariak lagun, herriaren eginen dute eskea. Eta, gaur, Unai Elizasu, Diego Riaño eta Migel Mari Elosegi bertotatik aditzeko aukera izanen da Errekako bertso afarian.

Gauerditik aurrera, Karra-pen kontzertua izanen da. Lau talde izanen dira eszenatokian: Aketza, Eko 4, Agorafobia eta Minutos de odio. Aitatzekoa da aurreneko bi taldeetan herriko bi lagunek jotzen dutela, Ibai Gartzia *Tolare*-k eta Josu Erbitik, hurrenez hurren.

Eta hurrengo eguna, igandea, bete-betea izanen da. Eguneko festa: kaleetan gora eta behera gurdiak, atxaureak, Incansables txaranga (egunero plazako taldearen atsedendietan eta bukaeran ere aterako dena), bazkaria, tren... Jendea, begira edota atxoatuta. Egun honetarako bereziki, antolatzeileek dei egin dute herriko kale nagusian eta hortik Arik Zubira dauden sarbideetan kotxerik ez aparkatzeko.

Asteartean, berriz, badira berrikuntzak, ume eta gazte txoentzat antzerki eta tailerrak izanen baitira. Eta baita kalejira eta txokolatada ere. Erleta-errekako kalejira gaur eginen dute, Ihteei hasiera emanez.



Herriko txokoak usu jantziko dira horrelako itxuraz; hori bai, elurrik ez omen da izanen aurten. A. Z. - J. A.

2006KO IHOTEK ▶ EGITARUA

GAUR
15:15. Erleta eskolako kalejira.

BIHAR, LARUNBATA
16:00. Herriko eskea.
21:30. Atxaureen bertso afaria, Erreka sagardotegian.
00:00. Kontzertua, Karra-pen.

ETZI, IGANDEA, ZALDUN IHOTE
12:00. Atxaure eta gurdien kalejira Incansablesekin eta Txu-bu tren.

Astearte horretan berean, gauean, 21:30ean, Torrean barrikotea eginen dute. Zabala sagardoa dastatuz, Egiarte urteko ardo naparra ere bai nahi izanez gero, sagardotegiko me-

14:30. Atxaureen herri bazkaria; Erleta eskolako jantokian.
16:00. Txu-bu tren.
18:00. Kalejira.
19:00 eta 23:30. Gau-bela taldea, Karra-pen.

ASTELEHEN IHOTE
09:00. Baserrietako eskea.
15:00. Puzgarriak, Amazabal pilotalekuan.
19:00 eta 23:30. Gau-bela taldea, Karra-pen.

nua. Txartelak hartzeko azken eguna, 23a, bezperakoa da, 28 euroan Torrean bertan daude salgai.

Behin ihoteak bukatuta, ikasleek beste opor egun bat

ASTEARTE IHOTE
09:30. Baserrietako eskea.
11:30. *Ingurumenua* antzezlanaren ume eta gazte txoentzat, zinemaren.
14:30. Aurrerako bazkaria.
16:00. Makilaje tailerra umeentzat, udal txoentzat aretoan.
17:00. Ume eta gazte txoentzat kalejira, Incansablesekin.
18:00. Txokolatada, plazan.
19:00 eta 23:30. Gau-bela taldea, Karra-pen.
21:30. Barrikotea, Torrean.

dute atsedean hartzeko. Hain justu euskarazko zinema saioen barranean, *Kiriku II* marrazki biziduneko filma ikusgai izanen dute zinemaren, 17:00-etan.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Bihar, batek kanpoan eta besteak etxean dute

Aurrerak Uharte Arakileren joan beharko du; gazteek, berriz, Lagunak taldea hartuko dute

J. ASTIBIA

Bihar, larunbata, 16:00etan dituzte jokatzekoak partiduak Aurrerako bi taldeek. Hori bai, bata etxean eta besteak kanpoan.

Aurrerak, helduek, Uharte Arakileren jokatu du, Aralar Mendi talderaren aurka, sailkapenean bederatzigarren lekuan dagoen taldea bera; izan ere, oraindainokoa hiru partidu besterik ez ditu irabazi Sakanako talde honek. Bestal-

de, gogoratzea denez, etorrerako partiduan, 2 eta 0 irabazi zuten leitzarrek.

Gazteak etxean

Aurrerako gazteen taldeak, berriz, Arkixkilen du hitzordua Lagunak taldearekin. Talde bizkorra da hau, bigarren mailako gazteetan, hirugarren taldekoen sailkapenean behinik behin, aurreneko hiru-lau taldeen artean baitabil Iruñerriko taldea.

LEITZA ▶ HARRI-JASOTZEA

Inaxio Perurena 220 kilokoaren bila doa: esku bakarrarekin jasotzera

Errekor saiakera Erandion eginen du bihar harri-jasotzaile leitzarrek

ERREDAKZIOA

Bihar beste marka ahalegin berria egitera doa Inaxio Perurena. Oraingoan, 220 kiloko harritzarra esku bakarrarekin jasotzen saiatuko da. Erandion du saioa.

Beste behin ere ezarrita dauden marka guztiak haustera doa leitzar gaztea: Iñaki Perurenak, bere aitak, du erabateko marka esku bakarreko arlo horretan, 268 kiloko *harrobia* jasota. Baina adinez, gaztetasunaren arabera, Aimar Irigoie-

nek du ezarria marka, 218 kiloko jasota baitu berak.

Bihar Inaxio Perurena beste bi kilo gehiagokoa jasotzen saiatuko da, oraindaino egingadako markak hautsiz.

iragarki laburrak ▶

LANA

Gidaria. Gidaria behar da estatuan zeharreko garraiiorako, ADR-rekin. Lan finkorako aukera handiak. 607 58 41 39.

▶ TOLASALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Dagoeneko indarrean dagoen lege berriaren arabera, lantegietan ezin da erre. Halaber, zenbait tabernetan erretzaileentzat egokitutako guneak jarri behar dituzte. Zer iruditzen zaizu? Gogorregia al da legea? Edota gogorragoa izan behar luke?



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Albiztur. Igor Jauregi eta Igor Gabilondo Realeko jokalariek herriko eskolara joango dira bisitan, 15:30ean.

Alegia. Aitor Mendiluzerekin eta Amaia Agirrerekin bertso afaria, bihar, 21:00etan, Intxurre elkartearen.

Izen-ematea, 20 eurotan, Kultur Etxean, Intxurren eta ohiko tabernetan.

Amezketak. Euskara Taldearen hirugarren bilera. 19:00etan, balio anitzeko gelan.

Tolosa. Otsailaren 5erako Basagain ehiza elkarteak antolatutako duen ehiza txiki txapelketarako izen-ematea 686 25 75 08 edo 943 33 21 33 telefono zenbakietan, 20 eurotan.

MUSIKA

Tolosa. Lobo Electrico eta Arima Beltza musika taldeen kontzertua. 22:30an, Bonberenean.

SAN SEBASTIAN

Berastegi. 11:00etan, meza San Sebastian basilikan.

Leaburu. 17:30ean, meza ermitan; ondoren, herriko dantzarien saioa; gero, merienda Zazpi Bide elkartearen.

Orendain. 10:45ean, txistulariekin kalejira San Sebastian basilikan; 11:00etan, bertan meza; ondoren, hamaiketako udaletxean; 14:00etan, Elboak elkartearen bazkaria.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina. Eguraldia Joxe Landarekin, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...

19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).


21:00-22:00. *Zaharrak Berri*, Hala Bedi irratia saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

22:00-23:00. *Arkako show* musika saioa.

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Tolosatik Altzora

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Maitek, Jonek, Karlak eta Arantxak Tolosako eta Altzoko txokoak jaso dituzte beren marrazkietan



TOLOSA ▶

Maite Cortajarena Alkorta (7 urte, Tolosa).

Bere etxe inguruko txokoa aukeratu du Maitek marrazkirako: «Gure etxeko taberna berria da hau».



TOLOSA ▶

Karla Murgialdai Zubeldia (7 urte, Tolosa).

Tolosaren ikuspegia marraztu du gure lagun Karlak. «Nire herria oso-oso polita da», dio bere marrazkiaren atzealdean.



TOLOSA ▶

Jon Cortajarena Alkorta (10 urte, Tolosa).

Gure lagun Jonek ere ekarri digu bere marrazkia HITZARA; «Tolosako irudirik ezagunena da», azaldu digu.



ALTZO ▶

Arantxa Urdangarin Iztueta (11 urte, Altzo).

«Ni bizi naizen auzoa da: Amategialdea», esan digu gure lagun Arantxak bere marrazkiari buruz.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Nerea. Datorren igandearen urtebete. Zorionak eta muxu handi bat zure anaia Aimar, ama, aita eta familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Iratxi Intxaurren. Gaur 7 urte. Zorionak Berastegi eta Zegamako familiaren partetik.



ZORIONAK
Harriet Martin Kortajarena (Zizurkil). Gaur 2 urte. Muxu handi bat ebekoen partetik, batez ere Haritz, Jokin, Unai eta Elixabete.



ZORIONAK
Izaskun. Ondu pasa urtebetetze eguna. Ebekoen partez.



ZORIONAK
Xuban Otero Garmendia (Anoeta). Gaur 3 urte. Zorionak aita, ama eta Maddiren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 beheko TOLOSA Udaltzako bulegoa IRTZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!